

# IKUILUA

Ikuiluko zoko batetik bestera belar garbiketak egiten ari zela konturatu zen Domingo bi idietako bat okertua bezala zegoela. “Ze ote du, ze ote du!” . Sukaldearen kontra zegoen paretari begira egoten ziren bi idiak. Baserriko bi idixkoak, preziatuak, soroko lanetan hainbeste laguntzen zutenak. Denek maite zituzten asko, baina batezere Domingok. Hark ekarritakoak ziren bere jaioterritik. Bere boterearen ikur ziren. Eta orain zer eta bat okertuta topatu, geldirik egonean herrenka ari balitz bezala. Halakorik! Ikuiluan alde batera eta bestera begiratu zuen Domingok, laguntza eske. Sei ardi eta behia ikusi zituen. Espazio handikoa zuten ikuilua, harmonian hartzen zuten babes etxeko abereek bertan, giro beroa, goxoa izaten zen, etxe guztia berotzen zuen haien arnasak. Sei ardi eta behia, etsita begiratu zuen albo banatara Domingok. Bai, maite zituen animalia haiek, baina bakarrik zegoen. Zoko batean zuten enbor ttiki idiaren ondoan jarri, eseri eta idiaren hankari laztanka hasi zitzaion Domingo, zertan ari zen oso garbi izan gabe. Eta zimiko moduko bat egin zuen idiak, irribarre itxurako zerbait.

Ohartzerako ondoan zituen Domingok sei ardiak. Elkarri laztanka, idiari babes ematen. Domingok barre egin zuen, ez, ez zegoen bakarrik. Dena lasai zegoen, dena bare, ondoko idiak, tente eta zuzen zegoenak, marru egin zuen arte. Jeloskor. Zapla eman zion Domingok ipurtaldean, gozo, lasai egoteko esanez, ez zela beratazahaztuko. Eta une hartantxe xagu txiki bixkor batek zeharkatu zuen ikuilua. Aztoratu zituen ardi, behi eta idixkoak. Tente zeudenak tentetu egin zituen xaguak eta herren ustean zebilenari ere laster ahaztu zitzaizkion lurrean etzan nahiak...